



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2018IPLE0009

Eguna: 2018-11-28

Ordua: 13:30 – 15:12

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

- Zorione Etxezarraga Ortuondo.....	EAJ-PNV
- Juan Martin Arregui Sagües.....	EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte	EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos	EAJ-PNV
- Nerea Zusberro Alberro	EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia	EAJ-PNV
- Andoni Gartzia Arruabarrena	EHbildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz	EHbildu
- Ander Goicoechea Ocariz	EHbildu
- Ainara Vázquez Martínez.....	EHbildu
- M ^a Teresa Bernal Monroy	EHbildu
- Iker Goñi Salaberria.....	EHbildu
- Mikel Durán Gonzalo.....	Euskadiko Sozialistak

Bertaratu ez direnak

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría, ordezko udal idazkaria

Aztergaiak

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / N°	ORDEN DEL DIA
2018ko urriaren 31ko akta onartzea	1.	Aprobación del acta de 31 de octubre de 2018
Zerga Ordenantzak 2019: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena	2.	Ordenanzas fiscales 2019: contestación de las alegaciones y aprobación definitiva.
Partehartze, informazio eta gardentasun ordenantzaren aldaketa zehatza: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena	3.	Modificación puntual de la ordenanza de participación ciudadana, información y transparencia: contestación de las alegaciones y aprobación definitiva.
UEU 9an lokal bat hartzearen inguruan 2017ko apirilaren 26ko akordioa bertan behera uztea.	4.	Dejar sin efecto el acuerdo sobre la adquisición de un local 450 m ² en la UEU 9.
Astigarragako udalaren eraikin, dependentsia eta instalazioak –baita ikastetxeak ere– garbitzeko zerbitzu-kontratua lagatzea.	5.	Cesión del contrato de limpieza de edificios, dependencias e instalaciones municipales y centro escolares de Astigarraga.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Lankidetzeta-hitzarmena Beterrri-Buruntza eskualdean bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze eta laneratze programaren zerbitzurako (Auzolan berri programa)	6.	Convenio de colaboración entre los Ayuntamientos de la comarca de Beterrri Buruntza para el servicio de programa de socialización e inserción laboral de personas en riesgos de exclusión (Programa Auzolan berri).
Batzorde informatiboaren izen aldaketaren onarpena	7.	Aprobación modificación denominación comisión informativa
Andoni Gartzia zinegotzi-liberatu izateari uko egin izanaren berri ematea.	8.	Dar cuenta de la renuncia de Andoni Gartzia a ser concejal liberado.
EHBilduren mozioa: DBH Mendiaundi-Aranibarren berresteko	9.	Moción de EHBildu: ratificar la ESO en Mendiaundi-Aranibar.
Informazio, galdera eta eskariak.	10.	Información, ruegos y preguntas.

Esan-eginak eta erabakiak:

1.- 2018ko urriaren 31ko akta onartzea

Aho batez onartu da.

1.- Aprobación del acta de 31 de octubre de 2018

Se aprueba por unanimidad.

2.- Zerga Ordenantzak 2019: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena

Alkateak ogasun eta ondare batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Honako alegazioak onartzea:

- 3898 sarrera zenbakia duena (PSE-EE).
- 4269 sarrera zenbakia duena (EAJ-PNV).
- 4270 sarrera zenbakia duena (Amaia Bengoetxea).
- 4273 sarrera zenbakia duen alegazioaren 10. Puntua (EHBildu)

Bigarrena.- 4273 sarrera zenbakia (EHBildu) duen alegazioaren lehendabiziko 9 puntuak ez onartzea.

Hirugarrena.- Onartu diren alegazioekin, 2019ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko den zerga-ordenantzaren Testu Bategina, behin betirako onartzea.

Laugarrena.- Zerga-ordenantzaren Testu Bategina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta irizpena puntuz puntu bozkatzea eskatu du. Komentatu du bere taldeak aurkeztutako emendakin gehienak baztertu egin direla, bakararra onartu dela, eta jarraian onartu ez diren nondik norakoak eta aurkeztu izanaren arrazoiak azaldu ditu (etxe hutsak, guraso bakarreko familientzako hobariak, kultur etxeko sarrerak,

2.- Ordenanzas fiscales 2019: contestación de las alegaciones y aprobación definitiva.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de hacienda y patrimonio:

Primero.- Estimar las siguientes alegaciones:

- N° de entrada 3898 (PSE-EE).
- N° de entrada 4269 (EAJ-PNV).
- N° de entrada 4270 (Amaia Bengoetxea).
- Punto número 10 de la alegación n° de entrada 4273 (EHBildu).

Segundo.- Desestimar los primeros nueve puntos de la alegación número de entrada 4273 (EHBildu).

Tercero.- Con la incorporación de las alegaciones estimadas aprobar definitivamente el texto refundido de las ordenanzas fiscales que entrarán en vigor el 1 de enero de 2019.

Cuarto.- Remitir el texto refundido de las ordenanzas fiscales al Boletín Oficial de Gipuzkoa para su publicación.

Toma la palabra el concejal Andoni y solicita que el dictamen se vote punto por punto. Comenta que la mayoría de las enmiendas presentadas por su grupo han sido rechazadas, que sólo se ha aprobado una, y a continuación expone las características de las que no han sido aprobadas y las razones de su presentación (viviendas vacías, bonificaciones para



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

etxejabeek eraikinen inspektzioaren ondoren egin beharreko obren tasa-hobaria, lur mugimenduaren tasa bikoiztea, eguneko zentroa doan izatea...)

Alkateak erantzun du irizpena bere osotasunean bozkatuko dela, beste erakundeetan horrela egiten delako. Jarraian EHBildu taldeak aurkeztutako emendakinak ez onartu izanaren inguruko gogoeta egin du. Komentatu du etxe hutsentzat eskatutakoa ez dela eraginkorra, guraso bakarreko familien hobariak beste herriek ematen dituztenarekin sintonian jarri nahi direla eta diru-sarrerak kontuan hartuta, kultur etxeko sarreren inguruan hartutako erabakiarekin sarreren salmenta bikoiztu egin dela, eraikinen inspektzioa legez egitera behartuta daudela, eta terrazak tabernak duten kategori bera dutela.

Andoni zinegotziak berriro hartu du hitza eta adierazi du: batetik, 2017ko zerga-ordenantzarako Hirukide elkarteak aurkeztutako mozioa onartu zela, eta galdetu du gaiaren inguruko txostena eskatu duten; bigarrenik, ezin dela esan gobernu taldearen ekimenarengatik kultur etxeko ikuskizunetako ikusle kopurua bikoiztu denik, gertatzen dena dela ikuskizun batzuk besteak baino arrakasta handiagoa izaten dutela; hirugarrenik, kafetegiak tabernak baino ordutegi murriztuagoa dutela, ondorioz, jabari publikoa gutxiago erabiltzen duela, eta tasa okupazioaren araberakoa izan beharko lukeela. Bukatzeko aurreratu du irizpena ez denez puntuka bozkatuko bere taldeak kontra bozkatuko duela, asmoa zuten arren Euskadiko Sozialisten eta bere emendakinen alde bozkatzeko, eta EAJ-PNVrean, berriz, abstenitzea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **onartu da** aldeko 7 botoekin (EAJ-PNV eta Euskadiko Sozialistak) eta kontrako 6 botoekin (EHBildu)

familias monoparentales, accesos de la casa de cultura, bonificación sobre la tasa de las obras que se deben realizar por parte de los propietarios de las viviendas tras la inspección de los edificios, duplicar la tasa del movimiento de tierras, gratuidad del centro de día...)

La alcaldesa le responde que el dictamen se votará en su integridad, ya que en otras instituciones se hace también del mismo modo. A continuación, realiza una reflexión en torno a la no aprobación de las enmiendas presentadas por el grupo EHBildu. Comenta que lo que se solicita para las viviendas vacías no es efectivo, que las bonificaciones de las familias monoparentales se quieren poner en sintonía con las que se conceden en otras localidades y que teniendo en cuenta los ingresos, la venta de las entradas se ha duplicado con la decisión tomada en torno a las entradas de la casa de cultura, que están obligados por ley a realizar la inspección de edificios, y que las terrazas cuentan con la misma categoría de los bares.

Toma la palabra el concejal Andoni y señala lo siguiente: por una parte, la aprobación de la moción presentada por la asociación Hirukide para la ordenanza fiscal de 2017, y pregunta si han solicitado informe sobre el tema; en segundo lugar, que no se puede afirmar que el número de espectadores de los espectáculos de la casa de cultura se haya duplicado por iniciativa del grupo de gobierno, que lo que ocurre es que unos espectáculos han tenido más éxito que otros; en tercer lugar, que las cafeterías tienen un horario más reducido que los bares, y que, en consecuencia, utilizan menos el dominio público, y que la tasa debería estar en consonancia con la ocupación. Para concluir, avanza que al no votarse el dictamen por puntos, su grupo votará en contra, a pesar de tener la intención de votar a favor de las enmiendas de Socialistas Vascos y las suyas propias, y abstenerse, en cambio, en la de EAJ-PNV.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado** con 7 votos a favor (EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 6 votos en contra (EHBildu).

3.- Partehartze, informazio eta gardentasun ordenantzaren aldaketa zehatza: alegazioak erantzutea eta behin betiko onarpena

Alkateak ogasun eta ondare batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

3.- Modificación puntual de la ordenanza de participación ciudadana, información y transparencia: contestación de las alegaciones y aprobación definitiva.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de hacienda y patrimonio:



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Lehena.- EHBilduk aurkeztu duen 4274 sarrera zenbakidun alegazioa EZ onartzea.

Bigarrena.- Ordenantzaren 31. Artikulua hasierako onarpenean emandako idazkerarekin uztea, hots:

“31. Artikulua. Kontratazioak

- 1 Kontratazio Mahaiaren aktak publikatu egingo dira web orrian.
- 2 Udalak 5.000 € baino gehiagoko kontratazioen prozeduren informazioa publikatuko du. Zein enpresei eskatu zaien aurrekontua, zein eskaintza egin duten eta zein izan den kontratua zehaztuz.

Baldintza pleguen bitartez egin baldin bada kontratazioa, aurkeztutako enpresa bakoitzak jasotako puntuazio eta egindako eskaintza ekonomikoa adierazi beharko da, esleipenduna azkenean zein izan den adieraziz.”

Hirugarrena.- Partehartze, informazio eta gardentasun ordenantzaren aldaketa-zehatza behin betirako onartzea.

Jarraian adierazi du proposatutako aldaketak legea betetzen duela, eta eraginkorragoa izango denez udal funtzionamendurako, alegazioa ez dela onartu.

Andoni zinegotziak adierazi du bere taldeak alegazioa berretsiko duela, ordenantzaren aldaketa gardentasunaren kontra doan neurri bat delako, legearen barruan hartutakoa izan arren. Azaldu du ordenantza onartu zenean kontratu txikien muga 18.000 eurotan zegoela eta ez dutela pentsatzen eraginkortasunaren kontra doanik, hiru aurrekontu eskatu behar izatea ez delako hainbesteko.

Ondoren, **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **onartu da** aldeko 7 botoekin (EAJ-PNV eta Euskadiko Sozialistak) eta kontrako 6 botoekin (EHBildu)

4.- UEU 9an lokal bat hartzearen inguruan 2017ko apirilaren 26ko akordioa bertan behera uztea.

Alkateak ogasun eta ondare batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Primero.- Desestimar la alegación presentada por EHBildu, número de entrada 4274

Segundo.- Dejar el texto del artículo 31 de la ordenanza como el que se aprobó inicialmente, es decir:

“Artículo 31. Contrataciones

1. Las actas de la Mesa de Contratación se publicarán en la página web.
2. El Ayuntamiento publicará la información sobre los procedimientos de contratación que superen los 5.000 €. Especificando a qué empresas le ha solicitado presupuesto, qué ofertas han realizado y qué empresa ha sido contratada.

Si la contratación se formaliza a través de los pliegos de condiciones, deberán indicarse la puntuación obtenida y la oferta económica realizada por cada empresa, señalando asimismo quién ha sido el último adjudicatario.”

Tercero.- Aprobar definitivamente la modificación puntual de la Ordenanza de participación ciudadana, información y transparencia.

A continuación señala que la modificación propuesta cumple la ley, y habida cuenta que será más eficaz para el funcionamiento municipal, la alegación no ha sido aprobada.

El concejal Andoni manifiesta que su grupo va a confirmar la alegación, dado que la modificación de la ordenanza supone una medida contra la transparencia, aunque haya sido tomada dentro de los límites de la ley. Expone que cuando la ordenanza fue aprobada, el límite de los contratos menores estaba situado en 18.000 euros y que no piensan que vaya contra la eficacia, dado que solicitar tres presupuestos no es para tanto.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado** con 7 votos a favor (EAJ-PNV y Socialistas Vascos) y 6 votos en contra (EHBildu).

4.- Dejar sin efecto el acuerdo sobre la adquisición de un local 450 m² en la UEU 9.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de ha-



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Bertan behera utzi dezan 2017ko apirilaren 26ko osoko bilkuran, HEA 9 "Ergobia ibilbidea" eremuko a.2/VL-2 partzela eraikigarriko 2 zenbakia duen lokalaren titulartasuna eskuratzearen inguruan, hartutako akordioa.

Jarraian adierazi du egun horretako tokiko gobernu batzordeak erabaki duela 785 m²ko lokala hartzea, eta dekretuz ebatzi dela 90m²ko lokala hartzearen akordioa bertan behera uztea.

Andoni zinegotziak azaldu du 2016ko azaroaren 19ko osoko bilkurak mozio bat onartu zuela, eta bertan jasotzen zela 2018rako haur eskolara egokitzea 800 m²ko lokalean. Gaineratu du lokal handia hartzeko erabakia 2 urte beranduago datorrela, eta denbora tarte horretan udal gobernu taldeak haur eskola lokalarentzat hainbat kokapen aztertu dituela (kultur etxea, Agui-ko eremua, Arrobitxulo, Kontxa Etxeberria 5-7), baina azkenean ikusi dela beraiek egindako proposamena dela hoberena.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta adierazi du albiste ona dela, beharrezkoa zena baino beranduago iritsi arren, eta gaineratu du erabaki berriak ahalmenduko duela haur eskola beharrezkoak diren bermekin egitea.

Alkateak hitza hartu eta erantzun du osoko bilkurak onartutako mozioa aurreikuspenik gabekoa zela. Gaineratu du bere taldeak ez duela ikusten haur eskola berriarentzako 785 m² behar direnik, baina gurasoekin konpromisoa hartu dela, eta lokala onartzea erabaki dela, baina gogoratu du mozioak irizpen politikoak direla. Bestetik, adierazi du hezkuntza gai estrategikotzat hartzen dutela, baina kontuan hartu behar dela diru publikoa dela. Bukatzeko komentatu du udala hiri-hezitzaile izateko mozioa aurkeztu dutela.

Azken adierazpen horiek alkatea eta Andoni zinegotziaren arteko eztabaida sortu du, bai diru publikoaren erabileraren inguruan, bai hezkuntza arloan aurreko legealdian herrian egindako inbertsioen inguruan. Izan ere, Andoni zinegotziarentzat horri esker legealdi honetan mantenu lanak bakarrik egin ditu udalak, hau izan baita hezkuntzan inbertsiorik gabeko legealdi bakarra. Alkatearentzat, berriz, egindako handipena urtebetera txiki gelditu zen, eta bere taldeak, aldiz, lortu du Hezkuntzak 2.700.000 euroko inbertsioa aurreikustea ikastolan handipen berri bat egiteko.

cienda y patrimonio:

Dejar sin efecto el acuerdo adoptado, en sesión plenaria de 26 de abril de 2017, en relación con la adquisición de la titularidad del local comercial nº 2 de la parcela edificable a.2/VL-2 de la AIU 9 "Ergobia ibilbidea".

A continuación señala que la comisión de gobierno celebrada ese día ha decidido adquirir un local de 785 m², y que se ha resuelto por decreto la suspensión del acuerdo de la adquisición del local de 90 m².

El concejal Andoni expone que el pleno celebrado el 19 de noviembre de 2016 aprobó una moción en la que se recogía la adaptación a la escuela infantil de 2018 en un local de 800 m². Añade que la decisión de adquirir el local grande llega 2 años más tarde, y que durante ese tiempo el grupo de gobierno municipal ha estudiado diversas ubicaciones para el local de la escuela infantil (la casa de cultura, el área de Agui, Arrobitxulo, Kontxa Etxeberria 5-7), pero finalmente se ha visto que la mejor oferta es la realizada por ellos.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que es una buena noticia, pese a que llega más tarde de lo que debiera, y añade que el nuevo acuerdo permitirá la construcción de la escuela infantil con las debidas garantías.

Toma la palabra la alcaldesa y responde que la moción aprobada por el pleno no incluía ninguna previsión. Añade que su grupo no contempla que para la nueva escuela hagan falta 785 m², pero que se ha comprometido con los padres y madres, y que se ha acordado aprobar el local, pero recuerda que las mociones son dictámenes políticos. Por otra parte, manifiesta que consideran la educación como tema estratégico, pero que hay que tener en cuenta que se trata de dinero público. Para concluir comenta que han presentado una moción para que el ayuntamiento sea considerado educador cívico.

Estas últimas manifestaciones generan un debate entre la alcaldesa y el concejal Andoni, tanto en torno a la utilización de dinero público como en torno a las inversiones llevadas a cabo en la localidad durante la anterior legislatura. Porque para el concejal Andoni, es gracias a eso que durante esta legislatura el ayuntamiento ha realizado únicamente trabajos de mantenimiento, puesto que ésta ha sido la única legislatura en la que no ha habido inversión en educación. Para la alcaldesa, en cambio, la



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Horren harira, Andoni zinegotziak gobernu taldeari aurpegiatu dio handipenerako Plan Orokorren aldaketa izapidetzeko zuzeneko kontratu bat egin izana, udalari auzi-errekurtso batean bost milioi euroko kalte-ordaina eskatu zuen abokatuari. Jon zinegotziak adierazi dio berak horren inguruan ez dakiela ezer, eta Andoni zinegotziak komentatu dio Ergobiako ibilbideko obra-sustatzailearen abokatuak kontratatu dela lan horretarako, eta epaiaren inguruan udal teknikariei galdetzeko.

Aztergaira itzuliz, Andoni zinegotziak galdetu du 1.200 m² arteko lokalak hartuko diren, alegia, udalak lokal gehiago jasoko dituen, eta eskatu du aktan jasotzea ez dela hirigintza hitzarmena aldatuko. Udal idazkariak tokiko gobernu batzordeak hartutako erabakiaren berri ematea proposatu dio alkateari, eta horrek azaldu du gaia bilera horretan aztertu dela eta aurretik bidalitako dokumentazioan eta txosten juridikoan azaltzen dela ez dela beharrezkoa hitzarmena aldatzea.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez onartu da**.

ampliación realizada se quedó corta al año de que se llevara a cabo, y su grupo, en cambio, ha logrado que Educación prevea una inversión de 2.700.000 euros a fin de realizar una nueva ampliación en la ikastola.

Al hilo de lo comentado, el concejal Andoni reprocha al grupo de gobierno haber hecho un contrato directo a una persona a fin de tramitar una modificación del Plan General para la ampliación, concretamente al abogado que solicitó una indemnización de cinco millones de euros en un recurso contencioso. El concejal Jon le indica que él no sabe nada al respecto, y el concejal Andoni le comenta que se ha contratado al abogado del promotor de la obra del paseo de Ergobia para ese trabajo, y que sobre la sentencia pregunte a los técnicos municipales.

Volviendo al tema a tratar, el concejal Andoni pregunta si se van a adquirir locales de hasta 1.200 m², es decir, si el ayuntamiento va a recibir más locales, y solicita que se recoja en acta que no se modificará el convenio urbanístico. La secretaria municipal propone a la alcaldesa que se dé cuenta del acuerdo tomado por la comisión de gobierno, y esta última señala que el tema se ha estudiado en esa reunión, y que en la documentación remitida previamente y en el informe jurídico se señala que no es preciso modificar el convenio.

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

5.- Astigarragako udalaren eraikin, dependentsia eta instalazioak –baita ikastetxeak ere– garbitzeko zerbitzu-kontratua lagatzea.

Alkateak obra eta zerbitzuetako batzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehena.- Astigarragako udalaren eraikin, dependentsia eta instalazioak –baita ikastetxeak ere– garbitzeko zerbitzu-kontratua ISS FACILITY SERVICES SA enpresari lagatzeko baimena ematea, kontratua dagoen baldintza beretan, eta kontratuaren lagapeneko eskritura publikoa udalari entregatzeko baldintzapean.

Bigarrena.- ISS FACILITY SERVICES SA enpresari jakinaraztea kontratuaren lagapenak lagapen-hartzailearen subrogazioa dakarrela berekin, lagatzaileari egokitu ahalko litzazkiokkeen eskubide eta betebeharrak guztietan. Eta betebeharren artean, besteak beste, honako hauek daudela: gaur egun

5.- Cesión del contrato de limpieza de edificios, dependencias e instalaciones municipales y centro escolares de Astigarraga.

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de obras y servicios:

Primero.- Autorizar la cesión del contrato de limpieza de edificios, dependencias e instalaciones municipales y centro escolares de Astigarraga a la mercantil ISS FACILITY SERVICES S.A, en las mismas condiciones en las que se encuentra el contrato y condicionado a entregar en el Ayuntamiento la escritura pública de cesión del contrato.

Segundo.- Notificar a ISS FACILITY SERVICES S.A que la cesión del contrato conlleva la subrogación del cesionario en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente. Obligaciones entre las que se encuentran: la obligación de subrogación de



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

plantillan dauden langileak subrogatu beharra, baldintza administratibo eta teknikoen agiria onartzea, UNI2 enpresak lizitazioarako aurkeztutako proposamen teknikoa eta hobekuntzak propiotzat onartzea, udalarekin izan beharreko harremana euskaraz izango dela bermatzea, pertsona erantzule edo arduradun bat izendatzea...

Hirugarrena.- *Unión Internacional de Servicios Integrales UNI2 SA eta ISS Falicity Services SA enpresei hartutako erabakia helaraztea, ohartaraziz lagapena balioa edukitzeko kontratuaren lagapeneko eskritura publikoa aurkeztu beharko dela.*

Laugarrena.- *Unión Internacional de Servicios Integrales UNI2 SA enpresari jakinaraztea fidantza ez dela itzuliko, ISS Falicity Services SA enpresak berria jartzen ez duen bitartean.*

Andoni zinegotziak aurreratu du alde bozkatuko dutela, eta adierazi du zerbitzuak publikatzearen aldekoak direla, eta lizitazio epea bukatzean hori egin daitekeela.

Jarraian **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez onartu da**.

6.- Lankidetzaren hitzarmena Beterri-Buruntza eskualdean bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako gizarteratze eta laneratzeko programaren zerbitzurako (Auzolan berri programa)

Alkateak gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enplegukobatzorde informatiboko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- *ONARTZEA* gizarte zerbitzuak proposatutako lankidetzaren hitzarmena, baina baldintzatua hitzarmen- sinatzaileen atala legeak eskatzen duen edukiri egokitzera.

Bigarrena.- *Alkateari ahalmena ematea hitzarmena sinatzeko, eta baita hori garatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sinatzeko ere.*

Jarraian adierazi du Lasarte-Oriak atzera egin duela, baina gainerako udalerriek erabaki dutela aurrera jarraitzea, eta horrek eskatzen duela hitzarmenean jasotakoa zenbatekoak egokitzea.

los trabajadores que actualmente están en plantilla, la aceptación del pliego de condiciones administrativas y técnicas, aceptar como propias la propuesta técnica y las mejoras presentadas para la licitación por la empresa UNI2, garantizar que la relación con el Ayuntamiento será en euskara, nombrar una persona responsable o encargada...

Tercero.- *Dar traslado a las empresas Unión Internacional de Servicios Integrales UNI2, SA eta ISS Falicity Services SA del acuerdo adoptado, significándoles que para que la cesión tenga validez, deberán de presentar la escritura pública de cesión del contrato.*

Cuarto.- *Comunicar a Unión Internacional de Servicios Integrales UNI2 SA que no se procederá a devolver la fianza depositada, hasta que ISS Falicity Services SA deposite una nueva.*

El concejal Andoni avanza que votará a favor, y señala que son favorables a la publicación de servicios, y que eso podría hacerse al finalizar el plazo de licitación.

A continuación, se ha procedido a votar el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

6.- Convenio de colaboración entre los Ayuntamientos de la comarca de Beterri Buruntza para el servicio de programa de socialización e inserción laboral de personas en riesgos de exclusión (Programa Auzolan berri).

La Alcaldesa presenta, para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión Informativa de servicios sociales, derechos humanos y empleo:

Primero.- *APROBAR* la propuesta de convenio realizada por los servicios sociales, condicionado a adecuar a la ley el apartado de los suscribientes.

Segundo.- *Autorizar a la alcaldesa a la firma del convenio y de cuantos documentos sean necesarios para desarrollar el mismo.*

A continuación señala que Lasarte-Oria se ha echado atrás, pero que el resto de ayuntamientos han decidido continuar adelante, y que eso exige la adaptación de las cantidades recogidas en el convenio.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Ondoren, **irizpena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez onartu da**.

A continuación, se ha procedido a vota el **dictamen**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

7.- Batzorde informatiboaren izen aldaketaren onarpena

Alkateak azaldu du gaia aurreko osoko bilkurak onartutako Aguijupen taldearen mozioan duela jatorria. Ondoren, proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Atal bakarra.- “Gizarte zerbitzuak, giza eskubideak eta enplegua” batzorde informatiboaren izena “Gizarte zerbitzuak, pertsona nagusiak, giza eskubideak eta enplegua” izenarengatik aldatzea.

Jarraian **proposamena** bozkatzera ekin da, eta **aho batez onartu da**.

7.- Aprobación modificación denominación comisión informativa

La Alcaldesa explica que el tema tiene su origen en la moción del grupo Aguijupen aprobada en la sesión anterior. Acto seguido, presenta para su aprobación la siguiente propuesta:

Apartado único.- Modificar la denominación de la comisión de “Servicios sociales, derechos humanos y empleo” por él de “Servicios sociales, personas mayores, derechos humanos y empleo”.

A continuación, se ha procedido a vota la **propuesta**, y se ha **aprobado por unanimidad**.

8.- Andoni Gartzia zinegotzi-liberatu izateari uko egin izanaren berri ematea.

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza. Horrek adierazi du kontu profesionalengatik uko egin diola zinegotzi liberatua izateari, eta bere taldeak ere uko egiten diola beste bat izendatzeari. Azaldu du aurreko legealdian ez zela liberaziorik eskatu, eta gainera, orain legea aldatu dela eta oposizioko kideek bermatuta duten eskubide bat dela.

Adierazi du orain arte bezala jarraituko dutela lanean, eta legealdian – liberazio aurretik eta liberazioarekin – aurkeztutako ekimenen kopuruak eman ditu, eta horien zenbatekoak aurreko legealdian aurkeztutakoekin konparatu ditu.

Bukatzeko facebook-en Astigarragako EAJ-PNV bere eta EHBilduren kontra argitaratutako idatzi batzuk irakurri ditu. Horrek zinegotziaren eta alkatearen arteko eztabaida sortu du, bigarrenaren ustez udal gobernu taldeari ezin zaiolako egotzi bertan argitarakoak.

Jarraian, alkateak zinegotzia zoriondu du, eta eskerrak eman dizkio urte hauetan udalari eskainitako denborarengatik, baita egindako jarraipenarengatik ere, eta emandako laguntzarengatik. Bukatzeko adierazi du eskatu dutela batzordeen ordutegiak aldatzea eta saiatu diren arren, ezin direla beti moldatu eta batzuen ordutegia ezingo dela aldatu. Eta aurreko legealdian ere bere taldeak eskaera bera egin zuen arren, ez

8.- Dar cuenta de la renuncia de Andoni Gartzia a ser concejal liberado.

La alcaldesa cede la palabra al concejal Andoni. Este señala que ha renunciado a ser concejal liberado por motivos profesionales, y que su grupo también ha renunciado a nombrar otro. Expone que en la anterior legislatura no se solicitó ninguna liberación, y que además, ahora la ley ha cambiado y se trata de un derecho que tienen garantizado los miembros de la oposición.

Señala que continuarán trabajando como hasta ahora, y facilita el número de iniciativas presentadas en la legislatura –antes de la liberación y con la liberación–, y ha comparado su número con las presentadas en la anterior legislatura.

Para concluir, ha leído unos escritos publicados contra su persona y contra EHBildu en el Facebook de EAJ-PNV de Astigarraga. Eso ha generado un debate entre el concejal y la alcaldesa, porque en opinión de esta última no le puede imputar al equipo de gobierno lo que se publique en dicho sitio.

A continuación, la alcaldesa felicita al concejal y le da las gracias por el tiempo dedicado al ayuntamiento durante estos años, así como por el seguimiento realizado y la ayuda prestada. Para concluir, señala que ha solicitado que se cambien los horarios de las comisiones, y que pese a haberlo intentado, no se pueden adaptar, y que el horario de algunas de ellas no se puede cambiar. Y que aunque su grupo realizó



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

zirela batzordeak beraien ordutegietara moldatu.

Zinegotziak erantzun dio EHBilduko zinegotzi guztiek udaletxetik kanpo egiten dutela lan, eta udal gobernu taldekoek sinatutako zinpekoen arabera, gehienek ez dutela kanpoan lan egiten. Bukatzeko gogoratu du legealdiaren zehar batzordeak quorum-a eduki badute izan dela bera joan izan delako bere taldeko zinegotziak joan ezin zuten batzorde guztietara.

también la misma solicitud en la legislatura anterior, las comisiones no se adaptaron a sus horarios.

El concejal le responde que todas y todos los concejales de EHBildu trabajan fuera del ayuntamiento, y que conforme a las declaraciones juradas firmadas por los miembros del gobierno municipal, la mayoría no trabajan fuera. Para concluir recuerda que si durante la legislatura las comisiones han contado con quórum ha sido porque él ha acudido a todas las comisiones a las que han faltado las y los concejales de su grupo.

9.- EHBilduren mozioa: DBH Mendiandi-Aranibarren berresteko

Alkateak Andoni zinegotziari pasa dio hitza. Horrek azaldu du azkeneko hirigintza batzordean aurkeztu zirela DBHren kokapenaren inguruko udal arkitektoaren eta aholkulari juridikoaren txostenak, eta horietan argi jaso dela ez dela bideragarria gobernu taldeak eta Ergobia ibilbideko obra-sustatzaileak gaiaren inguruan egindako proposamena. Eta oso larrizat jo du proposamen hori egitea, alkateak zekienean Txalakan eraikitzea ezinezkoa zela. Jarraian, mozio hau aurkeztu du onartua izan dadin:

- DBH Institutuaren kokapena Mendiandi-Anibarren izan behar duela berresten du Udal Osoko Bilkurak.
- DBH Institutua Txalakan kokatzearen proposamena behin-betiko bertan behera uztea eskatzen du Udal Osoko Bilkurak.
- DBH Institutuaren partzela jabetzan eskuratzeko 2018ko urtea amaitu baino lehen, tramite administratiboei ekitea eskatzen du Udal Osoko Bilkurak.
- 2019ko lehen hiruhilekoan DBH partzelaren hiritartze-proiektuaren idazketa esleitzea eskatzen du Udal Osoko Bilkurak.
- Honen guztiaren berri Astigarragako Herri Eskolako Guraso Elkarteari eta Zuzendaritzari, Arantzazuko Ama Ikastolako Guraso Elkarte eta Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzari eta Hezkuntza, Obrak eta Zerbitzuak eta Hirigintzako Udal sailei jakinaraztea eskatzen dugu.

9.- Moción de EHBildu: ratificar la ESO en Mendiandi-Aranibar.

La alcaldesa cede la palabra al concejal Andoni. Este último señala que en la última comisión de urbanismo se presentaron los informes del arquitecto municipal y el asesor jurídico en torno a la ubicación de la ESO, y que en dichos informes se recoge claramente que no es viable la propuesta en torno al tema realizada por el equipo de gobierno y el promotor de obra del paseo de Ergobia. Y considera muy grave hacer eso, cuando la alcaldesa ya sabía que era imposible construirlo en Txalaka. A continuación, presenta la siguiente moción para su aprobación:

- El Pleno Municipal ratifica que el Instituto de ESO debe ubicarse en Mendiandi-Anibar.
- El Pleno Municipal solicita la retirada definitiva de la propuesta de ubicación del instituto de ESO en Txalaka.
- El Pleno Municipal solicita iniciar los trámites administrativos para la adquisición en propiedad de la parcela del instituto de ESO antes de que finalice el año 2018.
- El Pleno Municipal solicita adjudicar la redacción del proyecto de urbanización de la parcela de ESO durante el primer trimestre de 2019.
- Y finalmente solicitamos que todo esto sea puesto en conocimiento de la Asociación de Padres y Madres y de la Dirección de Astigarragako Herri Eskola, de la Asociación de Padres y Madres y de la Dirección de Arantzazuko Ama Ikastola, del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, de la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, y de los departamentos municipales de Educación, Obras y Servicios, y Urbanismo.



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Ondoren, adierazi du udal osoko bilkurak onartu zuela guraso elkarteak aurkeztutako mozioa, baina ez dela bete, eta ezin dela bete 2019rako ezin delako lursaila eskuratu eta urbanizatu.

Mikel zinegotziak hitza hartu eta adierazi du maiatzeko hirigintza batzordean Ergobia ibilbideko obra-sustatzaileak proposamena aurkeztu zuenean, berak eskatu zituela horren inguruko txostenak, alegia, kokapen egokiari buruzkoak kontuan harturik denbora eta hirigintza kudeaketa. Gaineratu du txostenak eztaba daezinak direla, udal aholkulari juridikoaren hitzetan Mendiandiko lursaila edozein momentuan hartu daitekeela, eta udal arkitektoak, berriz, epe motzean eta urte batzuetarako ezinezkotzat jotzen du DBH ikastetxea Txalakan jartzea. Bukatzeko adierazi du mozioa babestuko duela.

Alkateak eskatu du gaia ez politizatzea. Jarraian azaldu du udal arkitektoaren txostenean ez dela adierazten Txalakan ezin denik egin, baizik eta egungo kuotarekin ezin dela egin. Gaineratu du Mendiandiko jabeek eskainiko zaiela lursaila erostea, eta bestela desjabetu egingo dela. Bukatzeko aurreratu du bere taldea abstenitu egingo dela.

Andoni zinegotziak azaldu du Ur agentziak Akarregi eta Ergobian egingo dituen lanen ondorioz 6 urtetan uholdeen eragina aldatu daitekeela, eta Alkateari galdetu dio arkitektoari horren inguruko txostena eskatu dioten. Alkateak erantzun dio uholdeen erabaki guztiak obra eta zerbitzuei dagokiola, eta bertan eskatuko dela txosten teknikoa. Horren inguruan zinegotziak erantzun dio uholdeen batzordea eratu zela, bi sailak koordinatzeko asmoz.

Jarraian **mozioa** bozkatzera ekin da, eta **onartu da** aldeko 7 botoekin (EHBildu eta Euskadiko Sozialistak) eta 6 abstentzioekin (EAJ-PNV)..

A continuación, señala que el pleno municipal aprobó la moción presentada por la asociación de madres y padres, pero que no se ha cumplido, y que no puede cumplirse para 2019 porque no se puede adquirir y urbanizar el terreno.

Toma la palabra el concejal Mikel y señala que cuando el promotor de la obra del paseo de Ergobia presentó la propuesta en la comisión de urbanismo de mayo, él solicitó los informes sobre el tema, esto es, los referentes a la ubicación adecuada, teniendo en cuenta el tiempo y la gestión urbanística. Añade que los informes son incuestionables, que en opinión del asesor jurídico municipal el terreno de Mendiandí puede ser adquirido en cualquier momento, y que el arquitecto municipal, por su parte, considera imposible ubicar el centro de ESO en Txalaka a corto plazo o a algunos años vista. Para concluir, indica que apoyará la moción.

La alcaldesa pide que no se politice el tema. A continuación expone que en el informe del arquitecto municipal no se indica que no pueda hacerse en Txalaka, sino que no se puede hacer con las cuotas actuales. Añade que se ofrecerá la compra del terreno a los propietarios de Mendiandí, y que si no, se expropiará. Para concluir avanza que su grupo se va a abstener.

El concejal Andoni señala que a consecuencia de los trabajos que va a realizar la Agencia del Agua en Akarregi y Ergobia en 6 años puede cambiar la incidencia de las inundaciones, y pregunta a la alcaldesa si han solicitado informe al respecto al arquitecto. La alcaldesa le responde que todas las decisiones sobre las inundaciones corresponden a obras y servicios, y que solicitarán en dicho departamento el informe técnico. El concejal responde respecto a esa cuestión que se creó la comisión de inundaciones, al objeto de coordinar los dos departamentos.

A continuación, se ha procedido a vota la **propuesta**, y se ha **aprobado** con 7 votos a favor (EHBildu y Socialistas Vascos) y 6 abstenciones (EAJ-PNV).

10.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- Udalak antolatutako lehiaketa.

Andoni zinegotziak komentatu du lehiaketak bi kategoria zituela eta bakoitzak parte-hartzaile bakarra izan dutela, eta horiek udal gobernu taldeko kide batekin dutela familia harremana. Gaineratu du

10.- Información, ruegos y preguntas.

a.- Concurso organizado por el ayuntamiento

El concejal Andoni comenta que el concurso contaba con dos categorías y que cada una tuvo una única persona participante, y que ambas personas participantes tienen relación familiar con un miembro



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

horien parte-hartzea legea urratu ez arren, ez zaiela udalaren izenarentzat eta irudiarentzat ona iruditzen sariak horiei eman izana.

Alkateak erantzun du lehiaketaren baldintzak betez gero ez dagoela arazorik bertan parte hartzeko, eta gogora ekarri du orain dela legealdi batzuk gobernu taldeko kide baten semeari BOE etxebizitza bat egokitu izana, eta orduan inork ezer esan ez izana.

Andoni zinegotziak erantzun dio arazoa izan dela ez dela lehiaketara inor gehiago aurkeztu, eta aurkeztu direnak antolatzaile batekin harreman zutenez, hobe ikusten dutela lehiaketa hutsik jotzea, eta ikastolarekin lantzea beranduago egiteko.

Urkiri zinegotziak adierazi du udal-idazkariak adierazi zuela erabakiak ez zuela legea urratzen, eta EHBilduk egindako proposamenarekin parte hartzaileak zigortzen direla.

Alkateak, berriz, adierazi du ez dagoela teknikarien kontrako txostenik, eta lehiaketaren baldintzak batzordean aztertu zirenean, inor ez zuela aipatu parte hartzeak mugatu behar zirenik.

b.- azaroaren 25eko ekimena

Andoni zinegotziak adierazi ondoren berdintasun batzordea quorum faltagatik ez zela egin, komentatu du azaroaren 25eko lore banaketarako herrikoa ez den talde bat gonbidatu zela, eta galdetu du hori egiteko herrian ez zegoen talderik, baita ere herriko talderen batekin harremanetan jarri ziren horretarako.

Alkateak erantzun dio Donostia Berri taldean astigartarrak ere badaudela, eta horiek hartu zutela parte; baita ez zirela beste talderekin harremanetan jarri.

Andoni zinegotziak azaldu du talde horren lehen hitzak gatzelaniaz izan zirela, eta hori zaindu beharreko zerbait dela.

c.- Arrobitxuloko handipena.

Arrobitxulon ikastolaren handipena egiteko planeamenduaren aldaketaren inguruan Ur Agentziari galdeketa egin zaion galdetu du Andoni zinegotziak.

del equipo de gobierno municipal. Añade que aunque su participación no infrinja la ley, no les parece bueno para el nombre y para la imagen del ayuntamiento haberles hecho entrega de los correspondientes premios.

La alcaldesa responde que si se cumplen las condiciones del concurso no hay problema para participar en él, y recuerda que hace algunas legislaturas le tocó una VPO al hijo de un miembro del equipo de gobierno, y que nadie dijo nada entonces.

El concejal Andoni le responde que el problema ha sido que a los concursos no se ha presentado nadie más, y que como los que sí lo han hecho tenían una relación familiar con un organizador, creen más adecuado declarar el concurso desierto, para realizar el correspondiente desarrollo más adelante con la ikastola.

La concejala Urkiri indica que la secretaria municipal señaló que el acuerdo no infringía la ley, y que con la propuesta realizada por EHBildu se castiga a las personas participantes.

La alcaldesa, por su parte, señala que no hay informe desfavorable del técnico, y que cuando se analizaron las condiciones del concurso nadie mencionó que se debía limitar la participación.

b.- iniciativa del 25 de noviembre

El concejal Andoni, tras señalar que la comisión de igualdad no se celebró por falta de quórum, comenta que para el reparto de flores del 25 de noviembre se invitó a un grupo que no era de la localidad, y pregunta si no hay ningún grupo en ella para poder hacerlo, y si se pusieron en contacto con algún grupo local para ello.

La alcaldesa le responde que en el grupo Donostia Berri también hay astigartarras, y que dichos miembros participaron en la iniciativa, pero que no se pusieron en contacto con otros grupos.

El concejal Andoni expone que las primeras palabras de dicho grupo fueron en castellano, y que eso es algo que hay que cuidar.

c.- Ampliación de Arrobitxulo

El concejal Andoni pregunta si se ha requerido a la Agencia del Agua en torno a la modificación del planeamiento preciso para llevar a cabo la ampliación



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

Alkateak erantzun dio ezetz, baina espedienteaz izapidetzen denean egingo dela. Zinegotziarentzat, berriz, aurrez galdetzea ongi legoke, ikusirik gune hori kokatzen dela 100 urteetako uholdeen eragin-eremuan.

d.- Berdintasun batzordea.

Andoni zinegotziak adierazi du batzordea eskatu zutela, eta deialdia egin arren, aztergaien artean ez zeudela Aldundiaren garraio publikoaren inguruko proiektuak, ezta udalak egindako inkestei buruzko emaitzen informazioa.

Alkateak eta Nerea zinegotziak erantzun diote batzordean horiek aztertzeke asmoa zegoela, eta Ramon zinegotziak, berriz, inkesten inguruko txostena bukatu gabe dagoen arren, asmoa zela galdera eta erregutan aztertzea.

Andoni zinegotziak adierazi du batzordea eskatu zutela autobus zerbitzu berria aztertzeke, eta hori ere galdera eta erregutan aztertzeke asmoa zegoen galdetu du. Ramon zinegotziak erantzun dio horren inguruko informazioa ez dutela, eta oraindik ere ez dagola zehaztuta zerbitzua nola geldituko den, eta alkateak, berriz, hobekuntzak egiteko aukera dagoela. Andoni zinegotziarentzat, aldiz, herritarrei esan arren ez dagoela ezer finkatuta, dena erabakita dago, zerbitzu berria lizitazioan baitago.

e.- Uholdeen batzordea

Andoni zinegotziak batzordea noiz egingo den galdetu du, eta Jon zinegotziak erantzun dio hurrengo astean egingo dela deialdia.

f.- Ubarburuko errepide berria eta garraio hiria

Andoni zinegotziak galdetu du horien inguruan udal gobernu taldeak zerbait egiteko asmoa duen. Alkateak erantzun dio gaia udal aholkulari juridikoaren esku dagoela.

g.- Gazte Asanbladaren kontzertua.

Andoni zinegotziak adierazi du kontzertu horretarako udalak ezarritako baldintzen kopia bat eskatu zutela eta ez dutela jaso, eta galdetu du horiek idatziz

de la ikastola en Arrobitxulo. La alcaldesa le contesta que no, pero que lo hará cuando se tramite el expediente. Para el concejal, en cambio, estaría bien preguntar de antemano, viendo que ese ámbito se ubica en la zona de influencia de inundación de 100 años.

d.- Comisión de igualdad

El concejal Andoni señala que solicitaron la comisión, y que pese a realizar la convocatoria, entre los temas a tratar no estaban los proyectos en torno al transporte público de la Diputación, ni tampoco la información de los resultados referentes a las encuestas realizadas por el ayuntamiento.

La alcaldesa y la concejala Nerea le responden que había intención de tratar esos temas en la comisión, y el concejal Ramón indica, por su parte, que aunque el informe sobre las encuestas esté aún sin concluir, la intención era tratarlo dentro de ruegos y preguntas.

El concejal Andoni señala que solicitaron una comisión para estudiar el nuevo servicio de autobús, y pregunta si había intención también de incluir ese punto dentro de ruegos y preguntas. El concejal Ramón le responde que carecen de información al respecto, y que aún no está especificado cómo quedará el servicio, y la alcaldesa por su parte, afirma que existe la posibilidad de realizar mejoras. Para el concejal Andoni, por su parte, a pesar de manifestar a la ciudadanía que no hay nada fijado, todo está decidido, ya que el nuevo servicio está en licitación.

e.- Comisión de inundaciones

El concejal Andoni pregunta cuándo se va a llevar a cabo la comisión, y el concejal Jon le responde que la convocatoria se hará la semana que viene.

f.- Nueva carretera de Ubarburu y ciudad del transporte

El concejal Andoni pregunta si el equipo de gobierno municipal piensa hacer algo al respecto. La alcaldesa le responde que el tema está en manos del asesor jurídico.

g.- Concierto de la Asamblea Juvenil

El concejal Andoni indica que solicitaron una copia de las condiciones establecidas por el ayuntamiento para ese concierto y que no la han recibido, y



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

jakinarazi zitzairen. Alkateak erantzun die baietz, eta udal-idazkariak adierazi du korreo elektronikoz jakinarazi zitzairela, korreo hori eskuratu duela, baina beraien berbidaltzea pasa zaiola, eta egingo duela.

Andoni zinegotziak adierazi du taldekoek bilera eskatu dutela, baina ez dutela erantzunik jaso. Alkateak erantzun dio hori ez dela horrela, hitzordua eman zaiela baina eskatu dutela zinegotzi jakin batekin ez egitea, eta hori onartezina dela. Zinegotziak aurpegiatu dio guraso elkarteari eta gure esku dago ekimenari gobernu taldeak ere gauza bera eskatu izana.

h.- Nerabentzako jarduera

Andoni zinegotziak adierazi du gaztelekuan nerabeentzako hitzaldi bat antolatu zela, eta zinegotzi batek bertako gazteak parte hartzea behartu zituela.

Urkiri zinegotziak adierazi du berak ez zuela horrelakorik egin, eta Ander zinegotziak adierazi du gazteei agindu ziela egiten zedena uzteko eta hitzaldira joateko.

Alkatearentzat gauzak ez dira testuingurutik atera behar, zinegotzia gonbidatu zen hitzaldia ematera eta edukazio kontua da nerabeek hitzaldian parte hartzea, udal ordezkariari errespetatua zor zaiola. Eta gogoratu du gazteleku udal zerbitzu bat dela.

i.- Abenduko udal osoko bilkura.

Andoni zinegotziak abenduan osoko bilkura egingo den galdetu du. Alkateak erantzun dio asmoa dela 20eko 13:30ean egitea, eta ongi datorkien galdetu die.

pregunta si se notificaron por escrito. La alcaldesa le contesta que sí, y la secretaria municipal señala que se les notificó mediante correo electrónico, que ha recibido ese correo pero que se le ha pasado reenviárselo a ellos, y que lo hará enseguida.

El concejal Andoni señala que desde el grupo se ha solicitado una reunión, pero que no han recibido contestación. La alcaldesa le contesta que eso no es así, que se les ha dado cita, pero que han solicitado no tenerla con un concejal en concreto, y que eso es inadmisibile. El concejal reprocha al equipo de gobierno que haya solicitado lo mismo a la asociación de madres y padres, y a la iniciativa Gure Esku Dago.

h.- Actividad para adolescentes

El concejal Andoni indica que se organizó una charla para adolescentes en el gazteleku, y que un concejal obligó a las y los jóvenes del lugar a que participaran.

La concejala Urkiri indica que ella no hizo nada de eso, y el concejal Ander señala que se ordenó a las y los jóvenes que dejaran lo que estaban haciendo y que acudieran a la charla.

En opinión de la alcaldesa, no hay que sacar las cosas de contexto, se invitó a la concejala a que diera una charla y es una cuestión de educación que las y los adolescentes participen en ella, puesto que se debe respeto a la representación municipal. Y recuerda que el gazteleku es un servicio municipal.

i.- Pleno municipal de diciembre

El concejal Andoni pregunta si se va a llevar a cabo pleno municipal en diciembre. La alcaldesa le responde que tiene intención de hacerlo el día 20, a las 13:30, y pregunta si les viene bien.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2018ko azaroaren 28an.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko udal-idazkaria